



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko azaroaren 11

129. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—10-22/LEY-00015. Foru Lege proiektua, kanpoko nafar herritarrekiko harremani buruzkoa (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—10-22/PRO-00019. Foru Lege proposamena, 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testu bategina onesten duena, hein batean aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (12. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—10-22/PES-00326. Galdera, Allozko urtegiko urez Salado ibaian ureztatzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (14. or.).

—10-22/PES-00327. Galdera, Estudios Melitón enpresak Nasuvinsari zor dion errentari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (14. or.).

—10-22/PES-00328. Galdera, Espainiako Gobernuak Oinarrizko Osasun Laguntzarako iragarritako 178 milioien jomugari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (15. or.).

—10-22/PES-00329. Galdera, Nafarroako patologien baheketari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).

—10-22/PES-00330. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria Next Generation funtsekin finantzatzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (16. or.).

—10-22/PES-00331. Galdera, zaharren egoitzen esparruan sindikatuek proposatzen duten eran hitzarmena aplikatzearen kostu ekonomikoari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (17. or.).

—10-22/PES-00332. Galdera, 2021eko Nafarroako Errenta Bermatuaren urteko balantzeko 15. taulan bildutako datuei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (18. or.).

- 10-22/PES-00333. Galdera, Nafarroako Gobernuak 2021ean gauzatutako pentsioei eta pentsioen osagarriari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (18. or.).
- 10-22/PES-00334. Galdera, Nafarroan etxegabetasun egoeran dauden pertsonen buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (19. or.).
- 10-22/PES-00335. Galdera, Housing First programa abiarazi zenez geroztik bertan sartu diren etxebizitzetako buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (19. or.).
- 10-22/PES-00336. Galdera, 2018az geroztik Gizarteratzeko Alokairuko Etxebizitzaren programara (GAE) atxikitako etxebizitza libreei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (20. or.).
- 10-22/PES-00337. Galdera, Nafarroako pobrezia eta gizarte desberdinkeria buruzko VI. txosteneko 18. taulari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (20. or.).
- 10-22/PES-00216. Galdera, Donezteben Arrizurriagako presak duen funtzionamenduari eta bertan uholdeak izatearekin duen loturari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 10-22/PES-00217. Galdera, familientzako elkarguneei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

## **10-22/LEY-00015. Foru Lege proiektua, kanpoko nafar herritarrekiko harremani buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2022ko azaroaren 2an hartutako Erabakiaren bidez, kanpoko nafar herritarrekiko harremani buruzko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Xedatzea kanpoko nafar herritarrekiko harremani buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

**2.** Herritarrekiko Harremanetako Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea** irekiko da, **2022ko abenduaren 7ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteak eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru lege proiektu horri.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Lege proiektua, kanpoko nafar herritarrekiko harremani buruzkoa**

1. artikulua.- Xedea.
2. artikulua.- Aplikazio-eremu subjektiboa. Kanpoko nafar herritarrak.
3. artikulua.- Definizioak.
4. artikulua.- Printzipio orokorrak.
5. artikulua.- Helburuak.
6. artikulua.- Kanpoko nafarren eskubideak.
7. artikulua.- Itzulera.
8. artikulua.- Kanpoko nafar komunitateak.
9. artikulua.- Kanpoko nafar komunitateen federazioak.
10. artikulua.- Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofiziala.
11. artikulua.- Nafar Komunitateen Kontseilua.
12. artikulua.- Lankidetzarako tresnak.

Xedapen iragankor bakarra.- Kanpoko nafar komunitateen araubide iragankorra.

Xedapen indargabetzaile bakarra.- Arauak indargabetzea.

Azken xedapenetako lehenbizikoa.- Erregelamendu bidezko gaikuntza.

Azken xedapenetako bigarrena.-Indarra hartzea.

#### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroa, hainbat arrazoi tarteko, emigranteen lurra izan da eta da. Jada XVI. mendean migrazio-fluxuak egon zirela jaso da, eta migrazioa joan diren azken bi mendeetako gure historiaren gertakari esanguratsua da, une garrantzizko batzuk eduki dituena; batez ere 1880. eta 1930. urteen

artean eta 1969. eta 1973. urteen artean. Bi tarte horiek Nafarroak XIX. eta XX. mendeetan eduki zuen bilakaera soziodemografikoa eta ekonomikoa markatu zuten.

Beren herrietan gutxi edo batere ez izaki, lana bilatzea izan da nafarrak beren lurra uztera bultzatu dituen arrazoi historiko nagusietako bat. Izan ere, krisi ekonomikoaren ondorioz edo gerraren ondorioz sorturiko pobrezia-erengatik eta errepresio politiko-erengatik Nafarroan bizitzea –Estatuko gainerako tokietan bezala– zaila zen uneetan, nafarrak munduko beste eskualde eta herrialde batzuetara joan ziren, milaka, etorkizun hobe baten esperantzan.

XXI. mendeko bigarren hamarraldian migrazioaren fenomenoak berriz hartu du indarra, emigranteen soslaia, oraingoan, bestelakoa den arren, bai daukaten profilarengatik bai motibazio-erengatik. Horrela, esan dezakegu inflexio-puntu berri batean gaudela, bat datorrena 2008ko finantza-krisi globalarekin, eta zerikusia duena gizarte irekiago baten ereduarekin, zeinean gazteek, lehen baino maizago, kanpora jotzen baitute beren ibilbide profesionalari hasiera emateko.

Nafar komunitateak beren sorterritik urruti egoiteak ekarri du, XX. mendearen hasieratik, hainbat etxe, biltoki eta zentro nafar edo euskal-nafar sortzea, espiritu asoziatibo baten ondorioz, herrialde batzuetan eta zenbait autonomia erkidegoetan. Bilgune horietan elkartzen dira bai lehen belaunaldiko emigranteak, bai horien ondorengoak, jatorrizko lurra-ekin daukaten loturak gordetzeko edo eta areagotzeko borondate aktiboa daukatenak.

Nafar komunitate hauek dira, de facto, Nafarroako Foru Komunitatea atzerrian proiektatzeko enbaxadoreak, Nafarroako identitatearen ikurrak zabaltzen dituztenak; aldi berean, Nafarroatik kanpo bizi izanda ere, Nafarroarekin lotura berezia duten pertsona guztien biltokiak dira. Nafarroak aitortu behar du komunitate horiek egindako lanaren balioa. Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak laguntza eman die dirulaguntzen politika baten bidez, zeinaren helburua baita funtzionamendu gastuak eta azpiegiturak hobetzeko gastuak ezartzeko laguntzak ematea, baita Nafarroarekin zerikusia duten kultur jarduerak antolatzekeo gastuak ere.

Baina beharrezkoa da, halaber, lotura bat ezartzea atzerrian dauden nafarrekin eta haien ondorengoekin, elkarre horietako kide izan gabe, beren lurra-ekin lotura berezia sentitzen dutenekin. Helburu horren alde egiten du Nafarroako Gobernuak 2019an onetsi zuen Kanpoko nafar herritarrekiko harreman-erako estrategiak (NEXT), hiru arda-

tzen inguruan: Komunikazioa/konexioa, Atxikipena/itzulera eta Lankidetzak aktiboa.

Horregatik beharrezkoa da lege-esparru bat ezartzea, Nafarroako administrazio publikoen eta kanpoko nafar elkarten arteko harremanak arautzeko, bai eta, modu osoago batean, Nafarroako administrazio publikoen eta kanpoko nafarren arteko harremanak ere, nafar horiek banan-banan harturik.

Lege-esparru horrek, helburuak modu eragin-korrean betetzeko ezarri behar diren betebeharrak eta eskubideak ezarri ahal izateko, foru legearen maila eduki behar du, eta kontuan eduki behar du Konstituzioaren 42. artikulua, Estatuari eskatzen diona “Estatuak bereziki atzerrian ari diren langile espainolen eskubide ekonomiko eta sozial babesen alde begiratuko du”, eta bere politika haien itzuleraren alde orientatuko du. Artikulu hori oinarri hartuta egin zen, halaber, abenduaren 14ko 40/2006 Legea, Kanpoko Herritarren Estatutuarena, eta beste autonomia erkidego batzuek gai horren inguruan garatu duten berariazko erregulazioa.

Esparru juridiko horretan, kontuan hartu behar da, halaber, abenduaren 26ko 52/2007 Legea, Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen (Memoria Historikoaren Legea). Izan ere, gerraren eta diktaduraren ondorioz asko izan ziren atzerrira jo behar izan zuten espainiarrak, eta haien artean, nafar asko.

Beraz, begi-bistakoa da foru lege hau oso beharrezkoa dela. Are gehiago kontuan hartzen badugu gaiari buruzko lege-xedapenik ez dagoela; Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan (LORAFNA) ez da gaia ukitzen, ezta ondorengo foru legeetan ere. LORAFNAk gaiari buruz egiten duen erreferentzia bakarra 5. artikuluan dago, nafar izaera politikoa aipatzen duenean, 2. puntuan honela azaltzen duena: “Atzerrian bizi eta beren azken auzotasun administratiboa Nafarroan izan duten espainiarrek, Nafarroan bizi direnek dituzten eskubide politiko berberak izanen dituzte. Halaber, haien ondokoek ere eskubide horiek izanen dituzte, espainiar gisa izena emanda badaude eta horrela eskatzen badute Estatuko legeriak zehazten duen gisan”.

Azalduetako arrazoiez gain, esan behar da botere publikoek duten betebeharra ere bete behar dela. Betebehar hori Konstituzioak ezartzen du, baldintza egokiak sustatzeko, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen berdintasuna

benetakoa eta eraginkorra izan dadin; horretarako, berdintasun horren osotasuna eragozten edo zailtzen duten oztopoak kendu behar dira, eta gizabanako guztiek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte har dezaten erraztu behar da.

Beraz, foru lege honen helburua da harreman instituzionalak sendotzea kanpoan bizi diren nafar herritarrekin, eta kolektibo horretako partaide direnei laguntza, zaintza eta babes emateko jarduketan-ildo oinarritzeko zehaztuko dituen euskarri juridikoa ezartzea. Horrekin lortu nahi da Foru Komunitatetik kanpo bizi diren nafarren afektuzko loturak gorde eta sustatzea, bai eta Nafarroako bizitza sozial, kultural, ekonomiko eta politikoan parte har dezaten ere, modu horretan kanpoan bizi diren nafarrek segi dezaten atxikitzen eta zabaltzen Nafarroako kultura eta nortasuna egun bizi diren lurraldeetan, Nafarroako kanpoko irudia bultzatzeko.

Foru lege honek 12 artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen dauzka. Horrela, erregulazioaren xedea eta aplikazio-eremu subjektiboa definitu ondoren, eta printzipio orokorrak eta helburuak aldarrikatu eta gero, kanpoan bizi diren nafarren eskubideak ezartzen dira (1. artikulutik 6.era), banan-banan harturik; eta hori, Kanpoko Herritar Espainiarren Estatutuari buruzko abenduaren 14ko 40/2006 Legean ezarritakoa galarazi gabe.

7. artikulua itzuleraren gaiari heltzen dio. Horrela, alde batetik, administrazioa konprometitzen du borondatezko itzuleraren alde egiten duten neurriak susta ditzan, eta beste alde batetik, itzuli direnei eta itzulera prozesuan daudenei zerbitzu publikoetarako sarbidea bermatu nahi die, Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren gainerako herritarren baldintza berberetan.

8. artikulutik 10. artikulura, kanpoko nafar komunitateak eta horien balizko federazioak arautzen dira, eta ezartzen dira Nafarroako Gobernuak ofizialki aitortzeko baldintzak, baita erregistro ofizialean inskribatzeko ere (azken hau 10. artikuluan arautzen da). Gainera, elkarte izaerako entitateak diren aldetik dagozkien eskubideak eta betebeharrak ezartzen dira.

11. artikuluan Nafar Komunitateen Kontseilua sortzen da. Kontseilua aholkua emateko eta parte hartzeko organoa da, maila horretako funtzioak esleituta dituen, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren barruan kanpoko nafar herritarrekiko harremanen arloko eskumena duen departamentuari atxikitzen zaio. Azkenik, haren

osaera, antolaketa eta funtzionamenduaren araubidea arautzen da.

12. artikulua estatuarekin, beste herrialde batzuekin edo autonomia erkidegoekin lortu nahi diren helburuak lortzeko aurreikusten diren lankidetzak tresnei buruzkoa da.

Xedapen iragankorrean araubide iragankor bat jasotzen da, Espainiako beste eskualde batzuetan eta beste herrialde batzuetan dauden etxe, biltoki eta zentro nafar edo euskal-nafar guztiek kanpoko nafar komunitatearen aitortza ofiziala izan dezaten, foru lege honetan ezarritako Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofizialean inskribatzeko.

### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da arauak ematea Nafarroako Foru Komunitateak, haren gizarte zibilak eta instituzioek Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo bizi diren nafar herritarrekin eta komunitateekin dituzten harremanak sendotu, sustatu eta koordinatzeko. Aldi berean, esparru juridiko bat ezarri nahi du, komunitate horien partaide direnei laguntza, zaintza eta babes emanen dizkieten oinarritzeko jarduketan-ildoak zedarrizteko.

2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa. Kanpoko nafar herritarrak.

Foru lege hau kanpoan bizi diren nafar herritarrei aplikatuko zaie. Foru lege honen ondorioetarako, hauek dira nafar herritartasun hori dutenak:

1. Kanpoan bizi diren nafarrak, bertan sarturik:

a) Nafarroako forudunaren izaera zibila edukirik, Foru Komunitatetik kanpo bizi direnak, bai Espainian, bai atzerrian.

b) Espainiako herritarrak, Espainian izandako azkeneko erroldatzea Nafarroako udalerrri batean izan dutenak, baldin eta kanpora joan baldin badira aldi baterako, joan-etorri askearen eskubidea baliatuz joan direnak barne.

c) Atzerrian bizi diren espainiarrak, Espainian izandako azkeneko erroldatzea Nafarroako udalerrri batean izan dutenak, zirkunstantzia hori Espainiako dagokion kontsulatuan egiaztatzen dutenak.

d) Aipatutako pertsona horietako bakoitzaren ahaideak, hau da, legez bananduta ez dagoen ezkontidea edo berarekin ezkontzaren pareko lotura duen bikotekidea, bai eta ondorengoak ere, lehen mailara bitartekoak, baldin eta desgaitasuna duten pertsonak badira, edo 21 urtez beherakoak edo ekonomikoki beren menpe eta beren kargura dauden 21 urtez gorakoak.

2. Beste edozein arrazoiengatik Nafarroari lotuta sentitzen diren eta foru lege honetan arautu-

tako kanpoko nafar komunitateren bateko bazkide diren pertsonak, beren herritartasun pertsonala edozein dela ere.

### 3. artikulua. Definizioak.

Foru lege honek ezartzen duenari begira, honela ulertuko dira:

a) Kanpoko nafar herritarrak: Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo bizi diren pertsonak, Foru Komunitatearekin lotura berezia daukatenak.

b) Kanpoko nafar komunitateak: elkarte izaera-ko erakundeak, irabazi-asmorik gabeak edo nortasun juridiko propioa dutenak, Nafarroako lurraldetik kanpo legez eratuak, beren estatutu-helburuak eta ohiko jarduna batez ere Nafarroarekin loturak mantentzera eta foru lege honen helburuak lortzera bideratuta daudenak, eta lege honetan xedatutakoaren arabera aitortuak direnak.

c) Itzulitako pertsonak: foru lege honen 2.1 artikuluan aipatzen direnak, Espainiatik kanpoko herrialde batean gutxienez urtebetez bizi izan direnak itzuli arte eta egoitza iraunkorra Nafarroako Foru Komunitatean finkatzen dutenak itzuli eta berehala.

d) Itzultzeko prozesuan dauden pertsonak: foru lege honen 2.1 artikuluan aipatzen direnak, modu fede-emailean frogatzen dutenak Nafarroara itzuliko direla Nafarroako Foru Komunitateko prestazio edo onura sozialen eskaera formalizatzen den urtean, baldin eta Espainiatik kanpoko herrialde batean bizi badira eskaeraren eguna baino urtebete lehenagotik gutxienez.

### 4. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan eta dituzten aurrekontu-baliabideen arabera, foru lege honen helburuak lortzearen alde eginen dute.

2. Nafarroako Foru Komunitateak uste du kanpoko nafar komunitateak aktibo bat direla Nafarroako ondasun komunarentzat, paper garrantzizkoa jokatzeko baitute Nafarroako Foru Komunitatearen kanpoko proiektzioan eta Nafarroaren nortasunaren ezaugarriak zabaltzeko lanean, eta eragile dinamizatzaileak direlako Foru Komunitateak autonomia erkidegoekin eta kokatuta dauden herrialdeekin dituen harreman kultural, sozial eta ekonomikoetan. Hori horrela, solaskide nagusizat hartuko dira kanpoan bizi diren nafar herritarrei buruzko gaietan.

### 5. artikulua. Helburua.

Hauek dira foru lege honen helburu nagusiak:

a) Kanpoko nafar komunitateen indartze eta garatze lanetan laguntzea, beren barne kohesioa eta elkarte-ekintzaren eraginkortasuna bultzatuz.

b) Kanpoko nafar komunitateen arteko eta komunitate horien eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko loturak zaindu eta indartzea, kideen lotura afektibo, ekonomiko, sozial, linguistiko eta kulturei eusten lagunduz, haiek beren bizitokietan Nafarroako kultura eta nortasuna mantentzen, lantzen eta transmititzen jarraitu ahal izan dezaten.

c) Kanpoan bizi diren nafarrei laguntza, zaintza eta babesa ematea.

d) Kanpoan bizi diren nafarrek Nafarroako bizitza sozial, kultural, ekonomiko eta politikoan parte har dezaten bultzatzea eta erraztea.

e) Kanpoan bizi diren nafarrek beren borondatez Nafarroako Foru Komunitatera itzultzea errazten duten neurriak hartzea.

f) Kanpoan bizi diren nafarrek hartu dituzten herrialdeetako eta autonomia erkidegoetako instituzioekiko eta gizarte eragileekiko harreman sozial, kultural eta ekonomikoak sustatzea.

g) Nafarroak kanpoan duen irudia bultzatzea, baita bere nortasuna eta kultura ere, eta Nafarroak dauzkan aukera ekonomiko, turistiko eta komertzialak ezagutaraztea, horretarako kanpoan bizi diren nafarren erakundeekin elkarlanean arituz.

h) Kanpoan bizi diren nafar komunitateen eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko harremanak sustatzeko bide egonkor eta eraginkorrak sustatzea.

i) Emigrazioaren fenomenoaren eta Nafarroarentzat duen garrantziaren balioa aitortzea.

### 6. artikulua. Kanpoko nafarren eskubideak

1. Kanpoan bizi diren nafarrei, foru lege honen 2.1 artikuluan sartzen direnei, honako eskubide hauek aitortzen zaizkie, oro har:

a) Nafarroako kultur ondarea eskuratzeko eskubidea, bereziki liburutegietakoa, artxiboetakoa, museoetakoa eta beste ondasun kultural batzuk, Nafarroan bizi diren herritarrek dituzten baldintza berberetan.

b) Nafarroako administrazio publikoen titulartasun edo kudeaketako jolas eta kirol zentroetara sartzeko eskubidea, bereziki gazteriari eta hiruga-

rren adinekoei zuzendutakoetara, Nafarroan bizi diren herritarren baldintza berberetan.

c) Nafarroako kultura, hizkuntzak eta historia ezagutzeko eta ikasteko eskubidea.

Horretarako, eta bere aurrekontu-baliabideen barruan, Nafarroako Gobernuak behar diren bitartekoak jarriko ditu eskubide hori gauzatu ahal izateko jarduerak antolatzen.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak entzun diezaien eskubidea, foru lege honek arautzen duen Kanpoko Nafar Komunitateen Kontseiluaren bidez.

e) Nafarroako Foru Komunitateko bizitza sozial eta kulturean parte hartu ahal izateko baldintzak sustatu daitezkeen eskubidea, beren ezagutza eta esperientzia eskaintzeko.

f) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, parte-hartze politiko, asoziatibo, kultural, sozial eta ekonomikoan, Nafarroako Gobernuak garatzen dituen jarduketetara sarbidea izateko eskubidea.

g) Nafarroako Foru Komunitatean gizarte, lan, kultura eta hezkuntza arloetan aitortzen zaizkien eskubideei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

h) Nafarroako Foru Komunitatearen berariazko araudiak aitortzen dien beste edozein.

2. Eskubide horiek baliatzen eta ezagutzen laguntzeko, Nafarroako Gobernuak bultzatuko du kanpoan bizi diren herritarrek izena eman dezaten kanpoan bizi diren nafarren borondatezko erregistro batean, eta sustatuko du komunikaziorako bide teknologikoen sorrera eta garapena, bai eta sare sozialen erabilera ere, komunikaziorako beste bide batzuen osagarri, Irisgarritasun Unibertsalari buruko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legean ezarritakoa kontuan hartuta.

## 7. artikulua. Itzulera.

1. Foru lege honen ondorioetarako, itzulera izanen da 2.1 artikuluan aipatzen diren pertsonak Espainiatik kanpoko herrialdetik Nafarroako Foru Komunitatera etortzea, bertan beren egoitza iraunkorra ezartzeko asmoz.

2. Nafarroako Gobernuak, toki entitateekin elkarlanean, kanpoan bizi diren nafarrak Nafarroara beren borondatez itzultzea errazteko politika integrala sustatuko du.

3. Itzuli diren edo itzultzeko prozesuan dauden nafarrei honako eskubide hauek aitortzen zaizkie, aurreko artikuluan ezarritakoez gain:

a) Itzultzeko aukeren berri izateko eskubidea eta Nafarroako Gobernuak horretarako eskaintzen dituen zerbitzuen aholkularitza jasotzekoa.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak berariazko neurriak hartuko ditu borondatezko itzulera errazteko eta itzuli direnen gizarteratzea bultzatzeko.

b) Hezkuntza-kontentsazioko planak eskuratzeko eskubidea, itzuleraren ondorioz hezkuntzan gerta daitezkeen desberdintasun egoerei aurrea hartzeko.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko titulu eta ikasketa ofizialei dagokien herrialdeko unibertsitateko eta unibertsitateaz kanpoko titulu eta ikasketa ofizialak homologatzeko aukerari buruzko aholkularitza jasotzeko eskubidea dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

c) Nafarroako Gobernuak etxebizitza babestuztat jotzen dituen babes ofizialeko etxebizitzetara sarbidea edukitzeko eskubidea, gaiari buruzko araudi espezifikoak ezartzen dituen baldintzekin, Nafarroara itzuliz gero.

4. Nafarroako Gobernuak bermatuko die itzuli diren edo itzultzeko prozesuan dauden pertsonen dauden prestazio edo onura sozialak izateko aukera, hala nola seme-alabak eskolatzea, etxebizitza publikoaren eskaintza, osasun zerbitzuak, oinarrizko errenta, egoitzetako tokiak eta abar, Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren gainerako herritarrek dituzten baldintza berberetan.

Horretarako, itzuli diren edo itzultzeko prozesuan dauden nafarrek prestazio edo onura sozial horiek jaso ahal izanen dituzte frogatu beharrik izan gabe Nafarroako Foru Komunitatean lehenagotik bizitzeko betebeharra, hala eskatzen denean, baldin eta gainerako baldintzak betetzen badituzte eta Espainiatik kanpo bizi izan badira aldi batez, jarraian eta itzuleraren unera arte –itzuli direnen kasuan–, edo prestazio edo onura soziala eskatu den arte –itzultzeko prozesuan daudenen kasuan–, aldi hori emigrante ez direnei eskatzen zaiena adinakoa edo luzeagoa bada.

Nafarroan lehenagotik bizitzeko betebeharrak salbutsirik egoteko denbora betebeharrean bertan aipatzen den aldia adinakoa izanen da, itzuleratik kontatzen hasita, itzuli direnen kasuan, edo prestazio edo onura soziala eskatzen denetik kontatuta, itzultzeko prozesuan dauden emigranteen kasuan.

5. Foru lege honen ondorioetarako, ez dira atzerrian bizi izandako denboratzat hartuko atzerrian egindako egonaldi laburrak, ikasle-mugikortasuna, kanpamenduak, oporrak, turismo edo

antzeko arrazoi ludikoak direla eta. Era berean, ez dira bizi izandako denboratzat hartuko atzerrian egindako ikasketekin lotutako praktikaldiak, edo boluntario gisa emandako zerbitzu aldiak edo ordainsari ekonomikorik ez dakarren beste edozein.

### **8. artikulua.** Kanpoko nafar komunitateak.

1. Entitate batek kanpoko nafar komunitatetzat aitortua izateko, eta foru lege honetan arautzen diren onurak eta prestazioak lortzeko, honako baldintza hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:

a) Berezko nortasun juridikoa duen eta irabazi-asmorik ez duen entitate bezala eratua izatea, dagokion legearen arabera aplikatzekoa den ordenamendu juridikoarekin bat.

b) Estatutuetak oinarrizko helburuen artean sartzeara, batzar nagusiak edo gobernu organo gorenak hala erabakita, lotura kultural, sozial edo ekonomikoak izatea Nafarroako Foru Komunitatearekin, bertako jendearekin, historiarekin, hizkuntzekin eta kulturarekin, bai eta haren errealitatearen beste edozein alderdirekin ere.

c) Kanpoan bizi diren nafarrak edo nafar jatorrizkoak era zabalean bilduko dituen proiektu plural bat garatzeko asmoa izatea, alde batera utzita nondik datozen, gizarte-maila, aukera ideologikoa edo alderdia.

d) Barne egitura, antolamendua eta funtzionamendua irizpide demokratikoen arabera izatea.

2. Hauek ezin dira inola ere atxiki foru lege honetan ezarritakora: izaera sekretua edo paramilitarra duten entitateak, alderdi politikoak, sindikatua edo erakunde enpresarialak, elizak, konfesio edo komunitate erlijiosoak, kirol federazioak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak, lege bereziak arautzen duten beste edozein, beren helburuak lortzeko bitarteko baketsu edo demokratikoak erabiltzen ez dituztenak edo gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aurka doazenak, ez eta Espainiako ordenamendu juridikoaren arabera helburu ez zilegiak dituzten gainerako guztiak ere.

3. Nafar komunitateen izenak edukiko du, hala-beharrez, Navarra hitza (edo Nafarroa, euskaraz), edo horren deribazioaren bat.

Ez dira onartuko izen iraingarriak, ezta foru lege honetan aurreikusitako helburuekin bat ez datozenak ere.

4. Kanpoko nafar komunitate baten aitortza Nafarroko Gobernuaren erabakiaren bidez eginen

da, Nafar Komunitateen Kontseiluak alde aurretik txostena eginda, eta entitate interesdunak eskatuta.

Aitortua izateko eskaerari hauek erantsiko zaizkio:

a) Entitatearen estatutuen kopia kautotua edo konpultsatua, eta entitatearen eraketa eta nortasun juridikoa egiaztatzen duen dokumentazioa, baita dagokion erregistroko inskripzioarena ere, hala badagokio.

b) Entitatearen batzar orokorrak edo gobernu organo gorenak hartutako erabakia, aitortza eskatzeko adierazitako nahiari buruzkoa.

c) Memoria bat, egindako jardueren eta etorkizunerako proiektatzen direnen berri ematen duena.

d) Entitateko zuzendaritza organoen osaeraren eta bazkideen zerrendaren ziurtagiria.

5. Kanpoko nafar komunitatetzat aitortutako entitateak ofizios inskribatuko dira foru lege honetan aurreikusitako Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofizialean.

6. Artikulu honen 1. apartatuan zehazten diren baldintzak betetzen ez badira, Nafarroako Gobernuak atzera bota ahal izanen du aitortza. Baldintzak hauek dira: denbora luzez jarduerarik ez izatea, inskripzioan agertzen diren datu edo dokumentuak faltsuak direla deklaritzen duen epai judizial irmorik izatea, entitatea eratzeko erakunde eskudunek emandako nahitaezko baimekin ezeztatzea edo eraginkortasuna galtzea, Nafarroako Foru Komunitatean dirulaguntzen alorrean indarrean dagoen araudiak arau-hauste oso astuntzat jotzen dituen ekintzak edo ez-egiteak burutzea, edo erregelamenduz zehazten diren beste batzuk.

7. Honako eskubide hauek aitortzen zaizkie kanpoko nafar komunitateei:

a) Nafarroako administrazio publikoen dirulaguntza eta laguntza publikoen deialdietan parte hartzeko eskubidea, beren helburuak betetzeko jarduerak egiteko.

b) Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak nafar komunitateen intereserako diren gaietan hartzen dituzten xedapenei eta ebazpenei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

c) Nafarroari buruzko funts editoriala eta ikus-entzunezkoa izateko eskubidea, Nafarroako historia, hizkuntzak, kultura, turismoa, kultur ondarea eta gizarte errealitatea ezagutzeko.



d) Nafarroako bizitza kultural, linguistiko, sozial eta ekonomikoaren adierazpide guztietan parte hartzeko eskubidea, horrela Nafarroaren kanpoko proiektzioa hobetzeko.

e) Kanpoko Nafar Komunitateen Kontseiluan ordezkatuak izateko eskubidea, eta kontseiluak entzun diezaien eskubidea.

f) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari komunitateek Nafarroako kultura sustatzeko antolatzen dituzten jardueretan parte hartzeko eskatzeko eskubidea.

g) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan eta aurrekontu-baliabideen arabera, berariazko tratamendua eman eta bermatuko die komunitate horiei zerbitzu telematiko eta informatikoak emateari dagokionez, informazioaren hedapena eta kideen arteko sarbide erraza zabaltzeko.

8. Aitortutako kanpoko nafar komunitateek betebeharrak hauek edukiko dituzte:

a) Nafarroako administrazio publikoek kanpoan dauden nafarrei eta beren lurralde-eremuan dauden nafar jatorriko pertsonen zuzendutako programetan laguntzea.

b) Beren lurralde-eremuko nafarrek, botoa emateko eskubidea daukatenean, Nafarroan egiten diren hauteskunde-prozesuetan parte har dezaten laguntzea.

c) Kanpoko nafar komunitateen egoeraren nolakoa Nafarroan zabaltzeko jardueretan laguntzea, dauden komunikabide eta plataformen bitartez.

d) Gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea, elkarte-mugimenduen jarraipena bermatzeko.

e) Kokatuta dauden lurralde-eremuan Nafarroako instituzioek antolatzen dituzten programa, misio eta delegazioetan aktiboki parte hartzea.

f) Nafarroako kultura bere kideen artean mantentzen eta zabaltzen laguntzea.

g) Nafarroako Gobernutik eta Nafarroako gainerako instituzioetatik jasotzen duten informazioa beren kideen artean zabaltzea.

h) Nafarroako Foru Komunitatearen kanpoko proiektzioa bultzatzen aktiboki laguntzea.

9. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, foru lege honen helburuen esparruan, kanpoko nafar komunitateak mantentzen lagunduko du, urteko dirulaguntza programen bidez, beren egoitza sozialen azpiegiturak erosi, alokatu, hobe-

tu eta mantentzeko eta jarduerak egiteko gastuetarako.

10. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, lege honen helburuen esparruan, lankidetzak aktiboan arituko da kanpoan bizi diren herritarren arloan aritzen diren Espainiako Gobernuaren menpeko erakundeekin.

**9. artikulua.** Kanpoko nafar komunitateen federazioak.

1. Kanpoko nafar komunitateek federazioak eratu ahal dituzte, beren interesak bildu eta defendatzeko, eta beren helburuak eta xedeak elkarrekin eta era koordinatuan betetzeko.

2. Kanpoko nafar komunitateen federazioak, foru lege honetan jasotako prestazioen onuradun izateko, Nafarroako Gobernuak aitortu beharko ditu aurretik.

3. Entitate horiek aitortzeko, kanpoko nafar komunitateak aitortzeko ezarritako betekizun eta prozedura berberak bete beharko dira.

**10. artikulua.** Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofiziala.

1. Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofiziala sortzen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kanpoko herritarrekiko harremanen arloan eskumena duen departamentuari atxikita.

2. Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofizialean ofizios inskribatuko dira Nafarroako Gobernuak aitortu dituen kanpoko nafar komunitateak eta beren federazioak, foru lege honek ezarritzen duenarekin bat etorritik.

3. Kanpoko nafar komunitateek hauexek komunikatuko dizkiote Erregistroari:

a) Beren estatutuen aldaketa.

b) Burutzaren, zuzendaritza taldearen edo zuzendaritzako beste edozein organoren osakeren aldaketa.

c) Posta eta telefono datuen eta datu telematikoen aldaketa.

d) Entitatearen bazkideetan urtero gertatzen diren altak eta bajak.

4. Artikulu honetan aipatzen diren gorabeherak ez komunikatzeak ekar dezake foru lege honek kanpoko nafar komunitateentzat ezarritzen dituen eskubideak bertan behera geratzea.

5. Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistroak bi atal edukiko ditu; batean Espainiako beste lurralde batean egoitza duten nafar komunitateak egonen

dira, eta bestean atzerrian dauden komunitateak egonen dira.

**11. artikulua.** Nafar Komunitateen Kontseilua

1. Nafar Komunitateen Kontseilua sortzen da, Nafarroako Foru Komunitatean aholkua emateko eta parte hartzeko organo gisa, kanpoko nafar herritarrekiko harremanen arloan.

2. Nafar Komunitateen Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Gobernuari aholkua ematea kanpoko nafar komunitateekiko harremanen ildo orokorre, helburuei eta berariazko ekimenei buruz.

b) Kanpoko nafar komunitateen eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko harremanen egoerari eta gorabeherei buruzko txostenak eta ebaluazioak egitea.

c) Nafar komunitateen arteko harremanak sustatzea, baita komunitateen eta Nafarroaren eta bere instituzioen arteko harremanak ere.

d) Neurriak eta ekimenak proposatzea, kanpoko nafar komunitateen aurrerapena, hobekuntza eta ongizatea bultzatzeko.

e) Ordenamendu juridikoak esleitzen dion beste edozein.

3. Nafar Komunitateen Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kanpoko herritarrekiko harremanen arloan eskumena duen departamentuari atxikiko zaio. Departamentu horrek behar adinako laguntza teknikoa eman beharko dio bere eginkizunak egoki bete ditzan.

4. Nafar Komunitateen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta eginkizunak erregelamenduz zehaztuko dira foru dekretu baten bidez. Zer departamenturi dagoen atxikia, departamentu horretako titularra izanen da kontseiluburua. Kideak, hauek izanen dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak.

b) Kanpoko nafar komunitateen ordezkariak, erregelamenduz zehazten den moduan aukeratuak eta parekotasun-printzipioa aintzat hartuta.

5. Nafarroako Komunitateen Kontseilua eratu ondoren, Kontseiluko kideen agintaldia lau urtekoa izanen da, eta iraupen bereko aldietarako berritu ahal izanen da.

6. Nafarroako Komunitateen Kontseiluak urtean behin eginen du ohiko osoko bilkura, eta ezohiko bilkura kontseiluburuak egoki irizten dionean,

eta, nolanahi ere, kideen herenak hala eskatzen duenean.

7. Nafarroako Komunitateen Kontseiluan parte hartzeak ez du inolako ordainsaririk ekarriko.

**12. artikulua.** Elkarlan eta lankidetzarako tresnak.

1. Nafarroako Gobernuak lankidetzarako mekanismoak ezarri ahal izanen ditu Espainiako Gobernuarekin nafarrak edo nafar jatorria duten pertsonak bizi diren beste estatuekin nazioarteko hitzarmenak edo itunak egiteko, Nafarroarekin duten lotura gal ez daitezzen edo loturak indarra gal ez dezan, eta hala badagokio, itzultzeko esku-bidea gauza dezaten.

2. Nafarroako Gobernuak hitzarmenak egin ahal izanen ditu autonomia erkidegoekin, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, Espainiako herrien arteko kulturarteko harremanak sustatzeko eta erkidegoetan bizi diren nafarrei eta nafar jatorriko pertsonen aholkua eta laguntza emateko tresna izateko.

**Xedapen iragankor bakarra.** Kanpoko nafar komunitateen araubide iragankorra.

Espainiako beste eskualde batzuetan eta beste herrialde batzuetan dauden nafar komunitateek, foru lege honek indarra hartzean etxe, biltoki edo zentro nafar edo euskal-nafartzat edo antzekotzat aitortuta daudenek, kanpoko nafar komunitatearen aitortza ofiziala eskatu beharko dute data horretatik bi urteko epean, foru lege honetan ezarritako Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofizialean inskribatzeko. Epe horretan, foru lege honetan ezartzen diren eskubideak eta betebeharrak izanen dituzte.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe geratzen dira foru lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo bertan xedatutakoaren aurka dauden lege edo erregelamendu mailako xedapen guztiak.

**Azken xedapenetako lehena.** Erregelamenduak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau erregelamendu bidez garatzeko arauak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**10-22/PRO-00019. Foru Lege proposamena, 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duena, hein batean aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezkerreko-Ezkerra talde parlamentario mistoak foru lege proposamen bat aurkeztu dute, 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duena, hein batean aldatzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea argitara dadin Foru Lege proposamena, zeinak hein batean aldatzen baitu ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duena.

**2.** Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proposamena, 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duena, hein batean aldatzen duena.**

**ZIOEN AZALPENA**

2020ko martxoaren 14an alarma egoera deklaratu zenetik COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko, Nafarroako Foru Komunitateak zenbait salbuespenezko eta premiazko tributuen hartu ditu, aipatu osasun krisiak eragindako kalteak arintze aldera, Hitzarmen Ekonomikoaren arabera aitorturiko tributuen arloko eskumenak baliatuta. Neurri horiek aldaketak eragin dituzte Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araubidean, horien helburu nagusia izanik errenta ertain eta baxuen trataera hobetzea.

Erregaien eta elektrizitatearen handizkako merkatuko prezioen igoera, Ukrainako gerraren ondorioz areagotu egin dena, aurrekaririk gabeko gurrpil inflazionista eragiten ari da, eta horrek arazoak sortzen dizkie batez ere erosahalmen txikiagoa duten eta egungo krisiak gehien kalteztzen dituen errentei.

Egoera horri aurre egiteko eta prezioen igoerak eta horrek dakarren inflazioak errenta baxuetan eragiten dituen ondorioak arintzeko xedez, proposatzen da PFEZaren araubidean kuota osoan egiteko aparteko kenkari bat jasotzea, 2022ko zergaldian aplikatuko dena.

Hala, kenkariaren zenbateko finko bat ezarritzen da banakako aitorpenentzat, 540 eurokoa, 18.000 eurotik beherako lan etekin garbiak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak aitortzen dituztenentzat. Zenbateko horretatik aurrera, 35.000 euro arteko lan etekin garbiak edo

enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak aitortzen dituztenentzat muga horretarainoko errentarekiko alderantziz proportzionala den ehuneko bat aplikatuko da. Baterako aitortzenetan, kenkaria 900 eurokoa izanen da 30.000 eurotik beherako lan etekin garbiak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak aitortzen dituztenentzat, eta zenbateko horretatik aurrerako eta 53.000 eurorainoko errentei muga horretarainoko errentarekiko alderantziz proportzionala den ehuneko bat aplikatuko zaie. Hala ere, kenkaria ez da aplikatuko 4.000 eurotik gorako bestelako errentak jasozten badituzte.

Kenkaria ez da aplikatuko 2.000 eurotik gorako bestelako errentak jasoz gero.

Hori dela eta, proposatzen da Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea. Hona testua:

**Artikulu bakarra.** Aldatu egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, xedapen gehigarri berri bat erantsiz; honako testu hau izanen du xedapen berriak:

xxx xedapen gehigarria. 2022rako aparteko kenkaria lan etekinak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekinak jasotzen dituzten subjektu pasiboentzat

1. Lan etekinak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekinak jasotzen dituen subjektu pasiboak, familia-unitate bateko kide ez bada, honako zenbateko hauek kendu ahalko ditu kuota osotik 2022an:

a) 2022an 18.000 euro edo gutxiagoko lan etekin garbiak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekinak jaso dituen subjektu pasiboak: 540 euro.

b) 2022an 18.000 eurotik gorako lan etekin garbiak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekinak jaso dituen subjektu pasiboak: 540 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien

zenbatekoa ken 18.000 euro, eta horren emaitza bider 0,032.

1. apartatuan ezarritako kenkaria ezin izanen da aplikatu subjektu pasiboaren gainerako errentak, salbuetsiak barne, 2.000 eurotik gorakoak badira.

2. Lan etekinak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekinak jasotzen dituen subjektu pasiboak familia-unitate bateko kide bada, kenkaria aplikatuko da soilik VI. tituluan arauturiko baterako tributazioa aukeratuz gero, eta honela zehaztuko da familia-unitate osoarentzat:

a) Familia-unitateak 2022an 30.000 euro edo gutxiagoko lan etekin garbiak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak jaso baditu: 900 euro.

b) Familia-unitateak 2022an 30.000 eurotik gorako lan etekin garbiak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak jaso baditu: 900 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 30.000 euro, eta horren emaitza bider 0,039.

2. apartatuan ezarritako kenkaria ezin izanen da aplikatu familia-unitatearen gainerako errentak, salbuetsiak barne, 4.000 eurotik gorakoak badira.

3. Xedapen honetan arauturiko kenkaria egiteko, lan etekin garbiak eta enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak zehazterakoan aintzat hartuko dira salbuetsitako errentak.

4. Xedapen honetan araututako kenkaria ez da bateragarria izanen Nafarroako Foru Komunitatean Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko premiazko neurriak hartzeari buruzko apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretuaren 26. artikuluan araututako energia-krisiaren ondoriozko inpaktu ekonomikoa arintzeko aparteko kenkariarekin.

#### **Azken xedapenetako bigarrena.**

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**10-22/PES-00326. Galdera, Allozko urtegiko urez Salado ibaian ureztatzeari buruzkoa.***MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Allozko urtegiko urez Salado ibaian ureztatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten die Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari, idatziz erantzun dezaten:

Berriki jasotako informazioaren arabera, Allozko urtegiko urek 7.700 hektarea ureztatzen dituzte Salado ibaian.

Zer komunitate zehatz eta hektarea ureztatzen ditu bakoitzak?

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

**10-22/PES-00327. Galdera, Estudios Melitón enpresak Nasuvinsari zordion errentari buruzkoa.***JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko galdera, Estudios Melitón enpresak Nasuvinsari zordion errentari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zenbatekoa da, gaur egun, gabealdiaren luzapenen ostean Estudios Melitón enpresak Nasuvin-sari zor dion errenta?

Noiz sinatu zen errentamendu kontratuaren gehigarri berria, zeinaren bidez bigarren gabealdi bat ematen baita, errentamendu kontratuan ezarri-

tako errentaren hileroko ordainketatik aske uzten duena?

Nork egiten ditu estudioen instalazioen eta horiek denboraldi horretan dauden ingurunearen mantentze-lanak?

Zein dira mantentze-lan horiek, eta zenbatekoa da orain arte kontzeptu horregatik ordaindutako kopurua?

Zer enpresak egiten dituzte, eta zer kontratu-euskarriren eta -prozeduraren babesean?

Zer jarduera egin dira estudioetan, 2019ko azaroaren 7an amaitu zirenez gozotik?

Iruñean, 2022ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **10-22/PES-00328. Galdera, Espainiako Gobernuak Oinarrizko Osasun Laguntzarako iragarritako 178 milioien jomugari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Espainiako Gobernuak Oinarrizko Osasun Laguntzarako iragarritako 178 milioien jomugari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den 2022ko irailaren 21ean, Aierdi lehendakariordeak honako hau adierazi zuen Gobernuaren bilkuraren osteko prentsaurrekoan: "Estatu osoan, bagenekien 178 milioi euroko partida bat iragartzen zela Oinarrizko Osasun Laguntza sendotzeko (...) Ministerioarengandik baliabideak jasotzea espero dugu...".

Bideratuko al da Nafarroako Foru Komunitatera Espainiako Gobernuak Oinarrizko Osasun Laguntzarako iragarritako 178 milioi horien zatiren bat?

Zenbat diru iritsi da edo iritea espero da Nafarroara, noiz, eta zertarako erabiliko da zehazki?

Iruñean, 2022ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

**10-22/PES-00329. Galdera, Nafarroako patologien baheketari buruzkoa.***CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak Nafarroako patologien baheketari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer patologia ari dira bahetuak izaten gaur egun Nafarroan, jaioberrien baheketa hedatuari buruz legegintzaldi honetan onetsitako legea betetze aldera?

Non prozesatzen dira patologia horiek haute-mateko hartutako laginak? Ospitale batean baino gehiagootan prozesatzen badira, zehaztu zer patologia lantzen den zentro bakoitzean.

Une honetan, zer patologia gelditzen dira haute-mateko, legea betetzeko?

Nafarroako Gobernuak aldaketaren bat egingen al du legegintzaldi honetan zehar, bahetzeko dauden patologien baheketa sartzeari buruz edo laginak prozesatzeko lekuei dagokienez?

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

**10-22/PES-00330. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria Next Generation funtsekin finantzatzeari buruzkoa.***ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria Next Generation funtsekin finantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkeztu dizkio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun ditzan:

1.- Zer kudeaketa egin ditu Nafarroako Gobernuak, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren bidez, NUPeko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria Next Generation funts europarrekin finantzatu ahal izateko, Chivite lehendakariak 2020ko urrian aurkeztutako agirian jasota zegoen eran?



2.- Zein izan da kudeaketa horien amaierako emaitza? Erantzuna baiezkoa bada, zenbateko ekonomikoaren berri izatea eskatzen dugu, eta ezezkoa bada, horren arrazoiaren edo arrazoiaren berri izatea.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

---

## **10-22/PES-00331. Galdera, zaharren egoitzen esparruan sindikatuek proposatzen duten eran hitzarmena aplikatzearen kostu ekonomikoari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, zaharren egoitzen esparruan sindikatuek proposatzen duten eran hitzarmena aplikatzearen kostu ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarrean Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Gobernuak ba al daki zer kostu ekonomiko eraginen lukeen zaharren egoitzen esparruan sindikatuek proposatzen duten eran hitzarmena aplikatzeak?

2.- Zenbatekoa izanen litzateke kostu hori? Xehatu kontzeptuka, ahal bada.

Iruñean, 2022ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## 10-22/PES-00332. Galdera, 2021eko Nafarroako Errenta Bermatuaren urteko balantzeko 15. taulan bildutako datuei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, 2021eko Nafarroako Errenta Bermatuaren urteko balantzeko 15. taulan bildutako datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

2021eko Nafarroako Errenta Bermatuaren urteko balantzean, hau jasotzen da 15. taulan: "Errenta bermatua erabilitako enplegua bultzatzeko mekanismoak; aplikatutako espedienteak". Bildutako datuak kontuan hartuta:

1.- Nola da posible 2021. urteko C letraren emaitza 529 izatea, A letrari (1.404) B letra (424) kenduta kalkulatzen bada?

2.- Zein dira benetako datuak?

Iruñean, 2022ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## 10-22/PES-00333. Galdera, Nafarroako Gobernuak 2021ean gauzatutako pentsioei eta pentsioen osagarriei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuak 2021ean gauzatutako pentsioei eta pentsioen osagarriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Zer pentsio eta pentsioen osagarri gauzatu ditu Nafarroako Gobernuak 2021ean? Xehatu datuak kopuruaren, motaren eta zenbateko ekonomikoaren arabera.

Iruñean, 2022ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## 10-22/PES-00334. Galdera, Nafarroan etxegabetasun egoeran dauden pertsonen buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan etxegabetasun egoeran dauden pertsonen buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Gobernuak ba al du gutxi gorabeherako daturik gaur egun gure erkidegoan etxegabetasun egoeran dauden pertsonen kopuruari buruz? Xehatu datuak generoaren eta herriaren arabera, bai eta beste ahal bezainbat kontzepturen arabera ere.

Iruñean, 2022ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## 10-22/PES-00335. Galdera, Housing First programa abiarazi zenez geroztik bertan sartu diren etxebizitzetako buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, *Housing First* programa abiarazi zenez geroztik bertan sartu diren etxebizitzetako buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Zenbat etxebizitza sartu dira *Housing First* programan, programa gure erkidegoan abiarazi zenez geroztik? Xehatu datuak urteka eta baliabideak dauden herriak.

Iruñean, 2022ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## 10-22/PES-00336. Galdera, 2018az geroztik Gizarteratzeko Alokairuko Etxebizitzen programara (GAE) atxikitako etxebizitza libreei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, 2018az geroztik Gizarteratzeko Alokairuko Etxebizitzen programara (GAE) atxikitako etxebizitza libreei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Zenbat etxebizitza libre atxiki dira Gizarteratzeko Alokairuko Etxebizitzen programara (GAE) 2018az geroztik? Xehatu datuak urteka eta baliabideak dauden herrika.

Iruñean, 2022ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## 10-22/PES-00337. Galdera, Nafarroako pobrezari eta gizarte desberdinkeriari buruzko VI. txosteneko 18. taulari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako pobrezari eta gizarte desberdinkeriari buruzko VI. txosteneko 18. taulari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

Nafarroako pobrezari eta gizarte desberdinkeriari buruzko VI. txosteneko, 18. taulan, atal hau jasotzen da: "AROE adierazlearen bilakaera, autonomia erkidegoka. 2014-2021".

Taularen aurreko paragrafoetan, taula bera interpretatzen dutenetan, alegia, honako hau adierazi da: "Nafarroako tasa tarte horretako Estatuko batez bestekoarekin alderatuz gero, ikusten da 2021ean egon zela ehunekoen arteko alde

handiena: Nafarroako tasa ehuneko 15,5 baxua goa izan zen Estatukoa baino". Bildutako datuak kontuan hartuta:

1.- Nondik ondorioztatzen du Behatokiak Nafarroako eta Estatuko tasen ehunekoen arteko alde handiena izan zela denbora-tarte horretan?

2.- Nola da posible bien arteko aldea ehuneko 15,5 izatea, estatuko tasa 27,8koa bada, eta Nafarroakoa, 14,7koa?

Iruñean, 2022ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## 10-22/PES-00216. Galdera, Donezteben Arrizurriagako presak duen funtzionamenduari eta bertan uholdeak izatearekin duen loturari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Donezteben Arrizurriagako presak duen funtzionamenduari eta bertan uholdeak izatearekin duen loturari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00216); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

1.- Nafarroako Gobernuak ezagutzen al du San Tiburtzio izenez ezagutzen den eta Iberdrolaren titulartasuneko den presaren kontzesiorako espedientearen edukia, uhateak kontrolatzeko sistemari dagokionez? Izan ere, balizko uholdeen arriskua ekar dezakete, funtzionamendu okerra edukiz gero, eta horrek babes zibileko eskumenak ukitzen ditu, zeinaren titular bakarra Foru Gobernuak baita.

H/31/2º0352 emakida, energia elektrikoa sortze aldera Bidasoa ibaitik segundoko 9.000 litro ur aprobetxamendu hidroelektrikorako erabiltzekoa, Iberdrolaren alde baimendu zen mila bederatzehun eta berrogeita hamarrek abuztuaren hogeita bostean. Emakida horren bidez, baimena eman zen San Tiburtzio zentrala (Doneztebe eta Sunbillako udal-mugarteak) hirurogeita hamabost

urtez ustiatzeko, eta epe hori bi mila eta hogeita hamarrek abuztuaren hogeita bostean amaituko da.

Uhateak kontrolatzeko sistemari dagokionez, egia da uhateen funtzionamendu okerrak ur-laminaren maila igoaraz dezakeela presa baino goragoko uretan, eta horren afekzio nagusia presaren inguruetan gertatuko dela (hurbileko etxebizitza, bide berdea eta abar). Ibilguan gora presarekiko distantzia handitu ahala, ondorio horiek gero eta txikiagoak dira.

Hala ere, emakida-ebazpenetan ez dago inolako akordiorik uhateen kontrol- eta funtzionamendu-sistemari dagokionez. Eta ez dago horien funtzionamendu okerrak goragoko uretan izan ditzakeen ondorioak biltzen dituen inolako azterlanik, ezta aurreikuspenen arabera errepikatze-denbora desberdinetan gerta daitezkeen uholde-orbanak biltzen dituenik ere.

2.- Nafarroako Gobernuak espedientearen edukia ezagutuz gero, uste al du presaren kontzesioa duen eta uhateen funtzionamenduari arduradun den enpresa, Iberdrola alegia, betetzen ari dela babes zibilaren gaineko araudi indarduna, euriteak edo ibaian goraldi handiak direnean uhateek duten ukipenari dagokionez?

Arrizurriagako presa, SNCZI – IPEan (uholde-arriskua duten eremuen Kartografia Sistema nazionala – Presa eta urtegien inbentarioa) inskribatua, ez dago kategorizatuta arrisku potentzialeko presa gisa, eta ez da presa handizatzen Presak sailkatzeko Gobernu zentralaren Gida Teknikoan. Hori dela-eta, Presa eta horien urtegien segurtasuneko arau teknikoak onesten dituen apirilaren 13ko 264/2021 Errege-dekretuaren 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, ez du Presen Larrialdi Plan bat edukitzeko bete-

beharrrik, ezta Ustiatze Arauak idatzi, ezarri eta betetzen direla bermatzekorik ere.

Dena den, eta Babes Zibileko araudiari dago-kionez, zentral hidroelektriko elkartuak bi mila eta hogeiko azaroan egindako Autobabeserako Plan bat du, bi mila eta hogeita hirura arte indarrean egonen dena.

3.- Nafarroako Gobernuak uste al du kontzesio-hartzaileak ez dituela bete azken hamar urteetan funtzionamenduko klausulak eta presa kudeatzeko araudia? Espedienteren bat ireki al da horregatik edo beste arrazoirengatik?

Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio erki-degoen arteko demarkazio hidrografikoetan dauden jabari publiko hidraulikoko presa, urtegi eta urmaelen segurtasunaren inguruko eskumena, bai eta Estatuko interes orokorreko azpiegiturak diren segurtasunaren ingurukoa ere, betiere horien ustiatzea estatuari badagokio. Hori da Arrizurriagako presaren kasua, Kantauri Ekialdeko demarkazioko jabari publiko hidraulikoan baitago.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ere ez du jakin presaren funtzionamendu-klausula eta kudeaketa-arauen ez-betetzetik gertatu denik, ezta arrazoi horiengatik ezein espedienterik ireki denik ere.


4.- Kontuan hartuta presako uhateen funtzionamendu egokiak zuzeneko lotura duela babes zibilarekin, ibaian goraldiak izan eta Donezteben uholdeak gertatzen diren kasuetan, Nafarroako Gobernuak txostenik egin al du aztertze aldera presak izan dezakeen eragina, Donezteben uholdeak gertatzeko arriskuari begira?

SNCZI-IPEan T = 10 urte, T=50 urte, T=100 urte eta T=500 urte errepikatze-denboretarako dauden uholde-orbanek egun dagoen presaren azpiegitura jasota dute haien hedapen-modelizazioan.

Gainera, bi mila eta hogeita bateko abenduko uholdeen ondoren, eta Nafarroa klima-aldaketara egokitzeko LIFE-IP NAdapta-CC proiektuaren testuinguruan, Gestión Ambiental de Navarra (GAN-NIK) erakundeko teknikariek ikerketa bat egin dute.

Horretarako, ukitutako bizilagunen informazio grafikoa eta lekukotzak jaso dituzte (uraren maila eta uholde-orbanaren eremua), eta egiaztatu da izandako eraginak bat datozela ia berdin-berdin SNCZI-IPEn T=10 urte errepikatze-denborarako jasotako uholde-orbanarekin.

Hauteman da aipatutako eremuan orbana zabaldu egin dela, izandako prezipitazio handien ondorioz, errepikatze-denbora horretarako ezarritakoak baino handiagoak izan baitziren.



5.- Azterlan edo txostenik egon ezean Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du horiek egitea ebaluatze aldera presak izan dezakeen eragina Donezteben uholdeak gertatzeko arriskuari begira?

Aurreko erantzunean aipatu denez, GAN-NIKEko teknikariek ikerketa bat egin dute Donezteben bi mila eta hogeita bateko abenduan izandako uholdeen eragina neurtzeko. Hura egitean, aintzat hartu da Arrizurriagako presaren eragina.

6.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du, Doneztebeko udalerrian uholdeak izateko arriskuaren aurrean, larrialdi planean sartzea Arrizurriagako presaren funtzionamendua eta hartan gerta daitezkeen anomaliak?

Udalaren gobernu-organoei dagokie uholdeak izateko arriskuaren aurrean Udal Jarduketa Planak egitea eta onestea.

Beraz, Doneztebeko Udalak du gogoeta horiek txertatzeko eskumena.

Nafarroako Foru Komunitateko Babes Zibileko Batzordeari Plana homologatzea besterik ez dagokio.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## 10-22/PES-00217. Galdera, familientzako elkarguneei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Aranburu Bergua andreak familientzako elkarguneei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Aranburu Bergua andreak galdera egin du Familia elkartzeko guneei buruz (10-22/PES-00217). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Iruñean familia elkartzeko beste gune bat sortu da, familia-harrerako egoeretan haur eta nerabeei eta haien familia biologikoei berariazko arreta ematera zuzendua. Elkartzeko gunea abian da 2021eko azarotik, familiei eta adingabeei arreta emateko programa eta zerbitzuen kudeaketarako itun sozialaren 3. lotea adjudikatu ostean (Pertso-

nen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren zuzendari kudeatzailearen azaroaren 11ko 7924/2021 ebazpena), eta familia-harrerako egoeran dauden familiei eta adingabeei berariazko erantzun bat emateko sortu zen. Nafarroa osoko erabiltzaileei ematen zaie arreta elkartzeko gune horretan.

Gaur egun, dagoen eskaria aintzat hartuta, ez da beharrezkotzat jotzen familia elkartzeko gune gehiago sortzea.

Aintzat hartu dugu Lizarrako eremuan familia elkartzeko gune bat irekitzeko aukera, baina egungo eskariak ez du justifikatzen hori sortzea une honetan. Gaur egun, eremu horretako 7 adingaberi ematen zaie arreta Iruñeko eta Tafallako elkartzeko guneetan; kopuru hori ikusita, ez da efizientea orain zerbitzua deslokalizatzea. Dena den, eskariak hala eskatuz gero, ez dugu baztertzen hura sortzea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 11n

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

